

**2018KO URTARRILAREN 25EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bosta.

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hemezortzia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko lauretan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2017-12-21eko akta onartzea.

2017-12-21eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRA ZIURTAGIRIAK. Nekolalde kalea berrurbanizatzea (5.).

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da “**NEKOLALDE KALEA BERRURBANIZATZEA**” **OBRAK BURUTZE**ari buruzko obren 5. ziurtagiria, **50.036,19 €**koa (BEZ barne).

3.- ZAZPITURRIETA IZENEO 4. EREMUAN (I. FASEA) IGOGAILUA INSTALATZEKO OBREN ZUZENDARITZA. Obren zuzendaritza esleitzeko akordioaren zuzenketa-proposamena.

Lurralde batzordeak proposatuta, EAJ-PNV eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeen aldeko lau botoekin eta Beasaingo EH BILDU udal taldearen bi abstentzioekin, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da, Zazpiturrieta 4. eremuan (I. FASEA) igogailua instalatzeko obren zuzendaritza esleitzeko akordioaren zuzentzeari buruzkoa

“AURREKARIAK

1. Udalak “ZAZPITURRIETA” izeneko 4. eremuan (I. fasea) igogailu bat instalatzeko obrak lizitatu ditu 230.678,72 euroko zenbatekoaz, TOLEDO TALDEA ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P. sozietateak 2016ko maiatzaren 26an idatzitako eta Jose Miguel Toledo jaunak sinatutako proiektuaren arabera.
2. Tokiko Gobernuaren Batzordeak, 2016ko irailaren 29an, igogailua instalatzeko obrak Construcciones Otegi – Gaztañaga enpresari esleitu zizkion, eta obraren zuzendaritza fakultatiboa TOLEDO TALDEA ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P. sozietateari, hura baita proiektua idatzi duena.
3. Haatik, egia esatera, eskaintza, esleipena eman ostean, aipatutako arkitektura estudioari eskatu zitzaion eta Udalera igorri zen NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS arkitekto jaunaren eskutik, hura ontzat emanez aurrez adierazitako esleipen-akordioan erreparatu gabe.
4. Horren arabera, NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS jaunak obraren zuzendaritza burutu eta obrako ziurtapenak sinatu ditu, eta baita azken likidazioa ere, 2.017ko ekainaren 12koa.
5. Zuzendaritza burutu duenaren eskutik ordainsarien faktura aurkeztuta, Esku-hartzaitzak eragozpena igortzen da, arrazoi hauek direla medio:
 - zuzendaritzaren esleipen-akordioa ez dator bat faktura aurkezten duenarekin.
 - zorrak konpentsatzeko betebeharra dago esleipena egin zenaren alde.

ERABAKIA

Lehenik. Aipatutako obren zuzendaritza esleipenari buruzko erabakia zuzentzea eta NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS jaunak burututako Obren Zuzendaritza berrestea, hura baita egiaz burutu duena eta, horren ondorioz, jasotako faktura onestea.”

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko laurak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau sinatu eta idatzi dut.